

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2006KO LEHEN SEIHILEKOAN

2006ko lehen seihilekoan bidaiarien sarrerak %10 gehitu dira

Bidaiariek igarotako gau kopurua ere %10 gehitu da seihileko horretan.

EUSTATen datuen arabera, 2006ko lehen seihilekoan 901.683 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, 2005eko lehen seihilekoan baino 81.000 gehiagok eta, horrenbestez, %10eko gehikuntza izan da. Bidaiarien sarrerak bilakaera positiboa izan dute Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan. Bizkaian %16 igo dira, Araban %6 eta Gipuzkoan %5.

2006ko lehen seihilekoan, gaueko egonaldiak hoteletan 1.654.025 izan dira. Hau da, %10eko igoera aurreko urteko lehen seihilekoaren aldean, hau da, 2005eko lehen seihilekoaren aldean baino 157.000 egonaldi gehiago. Gaueko egonaldiak gora egin dute Bizkaian eta Gipuzkoan (%17 eta %8 igo dira hurrenez hurren). Araban, berriz, %2 jaitsi dira, lurralde honetako batez-besteko egonaldiak behera egin duelako (-%7).

Bidaiari bakoitzeko batez-besteko egonaldiaren iraupena 1,82 egunekoa zen aurreko urteko lehen seihilekoan, eta aurtengoan 1,83 egunekoa da, EAE osorako. Hobekuntza txiki hori Gipuzkoak ekarri du (1,86 egunetarik 1,93 egunetara igaroz) eta Bizkaia ere bai, neurri txikiagoan, 1,81etik 1,82ra igoz. Araban, berriz, adierazle honek behera egin du: 2005eko lehen seihilekoan 1,79 egun izan ziren eta 2006koan, 1,66.

Okupazio maila, plazen arabera, bost dezimal hazi da aurreko urteko denboraldi beraren aldean. 2005eko lehen seihilekoan %42,27koa zen eta 2006ko lehen seihilekoan %42,78ra iritsi zen. Irabazi hau Gipuzkoatik dator (%6), Gipuzkoan ez baita aldaketarik gertatu (%0) eta Araban behera egin baitu (-%6).

Nekazalturismoa: Bidaiarien sarrerak %9 hazi dira, eta gaueko egonaldiak %13, 2006ko lehen seihilekoan

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoko establezimenduetan 43.773 bidaiari sartu dira 2006ko lehen seihilekoan, aurreko urteko denboraldi berdinean baino %9 gehiago. Gipuzkoan %17 igo da eta Bizkaian %4, baina Araban %7 jaitsi da.

2006ko lehen seihilekoan, guztira, 104.806 gau igaro dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan. Beraz, aurreko urteko denboraldi beraren aldean %13 gehitu da kopuru hori; Gipuzkoan urte arteko hazkundea %19koa izan da, Bizkaian %8koa eta Araban %4koa.

Bidaiari bakoitzeko batez-besteko egonaldia 2,30 egunekoa zen aurreko urtean, eta 2,39 egun lehen seihiako honetan. Bilakaera positibo hau Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetara zabaldu da: Araban %11, Bizkaian %3 eta Gipuzkoan %2.

Okupazio mailak igoera arina izan du, ia hiru dezimaletakoa, Euskal Autonomia Erkidego osoan, Gipuzkoako eta Arabako hobekuntzei esker (%7 eta %4 hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, adierazle horrek behera egin du (-%10).

2006ko lehen seihiakoaren balantzearen datuak

	C. A DE EUSKADI			ARABA/ALAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2006	2005	Δ %	2006	2005	Δ %	2006	2005	Δ %	2006	2005	Δ %
OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK												
BIDAIARIEN SARRERA	901.683	820.369	10	140.108	132.474	6	420.469	361.505	16	341.106	326.390	5
GAUALDIAK	1.654.025	1.497.118	10	232.149	236.584	-2	764.824	652.623	17	657.052	607.911	8
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,83	1,82	1	1,66	1,79	-7	1,82	1,81	1	1,93	1,86	3
BETETZE-MAILA	42,78	42,27	1	38,99	41,31	-6	40,93	40,91	0	46,84	44,24	6
NEKAZALTURISMOA												
BIDAIARIEN SARRERA	43.773	40.320	9	6.604	7.087	-7	13.752	13.214	4	23.417	20.019	17
GAUALDIAK	104.806	92.727	13	15.246	14.677	4	31.702	29.459	8	57.858	48.591	19
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,39	2,30	4	2,31	2,07	11	2,31	2,23	3	2,47	2,43	2
BETETZE-MAILA	20,33	20,04	1	16,15	15,59	4	18,53	20,53	-10	23,14	21,58	7

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>